Basque Writing 33

LITERATURA-BANDAK

Bultzada Kolektiboa



Basque Writing honetan ikusi nahi izan dugu euskal idazleek nola heldu dioten kolektiboki idazteari. Belaunaldiz belaunaldi errepikatu den kontua da: idazle gazte eta hasiberriek sistema literarioa zurrun sentitu eta nozitzen dute bertan ez dutela lekurik. Pott eta Susa banden kasuan, nabarmen, argitaletxeek emandako errefusatik abiatu zen bide propioa urratzeko beharrizana. Ezetza eta ukoa izan ziren abiapunturako pizgarri. Antzeko sumindura antzematen zaie banda gehienei, Pott-etik Behe-raino: literatura-sisteman lekurik ez eta espazio propioa sortu nahiak bultzatu zituen banda sortzera.

Bandak aterpe eta abaro izan dira, babesa eta konplizitatea, kolektiboki sortzeko aukera, banakako bidea egiteko autokonfiantza emailea, ikasbide eta eskola, pizgarri intelektuala.

Plazaratu diren unean, banda guztiek “manifestua” egin dute. Aldarria da, begirada, kexa eta trufa aldi berean, eta jite irreberentea du kasu gehienetan, kanona kolokan jarriz.

Euskal plazara atera den banda gazteenari eman nahi izan diogu leku nagusia zenbaki honetan. Egun 20-21 urte dituzten idazleak dira, Araban, Gipuzkoan eta Bizkaian jaioak, eta Urruzuno Literatura Lehiaketak elkartu zituen 2022an. Testuari eta irudiari ematen diete garrantzia eta, batez ere, gizarte-sareetan murgiltzen dira, adinkideak dauden lekuetan, haiengana heldu nahi baitute. *Feed-back*-a ere sareetan jasotzen dute.

Behe Bandaren manifestuan aurreko bost bandetako musikalitate bera entzun daiteke, kezka, kexa eta trufa.

Euskaltzaindia pasa egin zen behea zer den azaldu nahian. Lurretik gertuen dagoen aldea da behea, eta lurretik gertuen geundela pentsatzen genuenean elkartu ginen gu.

Zertarako galdetu ziguten eta guk: fomento de la lengua vasca mediante textos literarios, *edo hori jarri beharko ligukete gu fabrikara etiketatzera bidaltzean. Berriki lortutako sasi-heldutasunaren babesgabezia zulo literario-politiko-filosofiko-zientifiko-zinetiko-zinefilo (???) hondogabean hazteko, edo pedanteria post-ironikoaz trufatzeko.*



Berriki **Pomada Banda** sortu da, hiru poetak (Lizar Begoña, Elena Olave eta Eva Perez-Pons) eta bi musikarik osatua (Andrea Plaza eta Amaia Villanueva). Hurrengo zenbakian ekarriko ditugu orriotara.

Laura Mintegi
Euskal PEN

BEHE BANDA (2025-)



June Aiestaran, Irati Oskoz, Maddi Agirre, Irati Fernandez de Okariz, Harri Diaz de Heredia eta Irati Larrañaga.

2022ko Urruzuno Literatur Lehiaketan ezagutu zenuten elkar, 16-18 urte zenituztela, eta ordurako bazenuten ibilibide literarioa.

Bakoitzak bere herriko lehiaketa txikietan, baina batez ere Urruzunon. DBH3n hasi ginen aurkezten eta idazten genuena lehiaketara bideratuta egiten genuen, irakasleak bultzatuta, baina behin irabaziz gero, norberaren gogoz idazten genuen. 18 urte betetzen dituzunean Urruzuno ez daukazu eta hurrengo gauza da jada sariketara handietara aurkeztea. Horrek ekarri zuen Banda egitearena, gelditu ginelako irabazteko errazak ziren lehiaketarik gabe. Gainera, denbora askoz ere gehiago ez geneukan, eta bizitza pilo bat konplikatzen da idazle izateko.

Nola planteatzen duzue Bandarena?

Gure buruari erronka modukoak jartzen dizkiogu gauza desberdinak egiteko, *discomfort-zone* deitzen dena, eta idazten ohituta ez gauden hori idaztera bultzatzen dugu elkar.

Aleka funtzionatu dugu, liburuxka txikiak egiten. Lehenengo bi aleak ariketaka antolatuta zeuden. Izan zitekeen esaldi bat eman eta gero denok esaldi horretatik tiraka egitea, edo objektu bati idatziozu zerbait. Gainontzekoen artean erabakitzen genuen bakoitzaren erronka. Izan zitekeen estilo berezi bat, gai konkretu bat beldurtzen zaituena. Behin gutariko bati esan genion poema erotiko bat idazteko; eroso ez zauden hortan trebatzeko eta saiatzeko. Banda eskola moduan ulertzen dugunez, zeozer egin behar genuen ohitutik ateratzen gaituena.

Nolako garrantzia ematen diozue egiletzari? Nork bere izenaz ala izen kolektiboaz?

Aleetako testuak bai sinatzen ditugu. Testuaren arabera. ARGIA aldizkarian idazten ditugun zutabeak ez ditugu sinatzen. Txandaka egin ditugu. Norbaitek idazten du, aportazioak egiten ditugu eta testua denona bihurtzen da. Testu guztiak guztienak sentitzea da kontua.

Kolektiboki egindako testuek lagundu egiten dizue gero banakako lana egiterakoan?

Erosoago sentitzen gara Bandan egiten dugun horretan, presioa kentzen digulako gainetik baina ateratzen denaren gaineko kargua denok daukagu. Denok sentitzen dugu askatasun handiago gauzak pentsatzen ditugun moduan esateko, kolektibo baten babesean gaudelako. Ez digu kentzen garantziarik indibiduo bezala, argi eta garbi erabakitzen dugulako noiz nahi dugun sinatu eta noiz ez. Eroso sentitzen duguna egiten dugu.

Gure buruari erronka modukoak jartzen dizkiogu gauza desberdinak egiteko, *discomfort-zone* deitzen dena, eta idazten ohituta ez gauden hori idaztera bultzatzen dugu elkar.

Bandaren babesik ez balego? Bakarka ikusten duzu zuen burua eremu publikoan?

(bakarka aritu dira) Ni oraindik ez naiz hasi horrelakorik pentsatzen eta ez dakit inoiz hasiko naizen. Bandak babesa ematen digu, koltxoi handia.

Nik idazten dudan guztia Bandaren bidez idazten dut, burua beste gauza batzuetan dudalako eta idaztean pentsatzen dudanean, Bandarako da.

Hamazortzi urterekin sentitzen ginen oso babes gabe eta lehiaketarik gabe, eta Banda sortu genuen, idazteko aitzakia moduan, baina ez dugu baztertzen indibiduo bezala aukeztea holako lehiaketetara, izatez Bandak konfiantza eman

digulako gauzak kaleratzeko orduan, beste modu batean lortuko ez genukeena. Agian 18 urterekin ez geunden prest ez-dakit-zein lehiaketetara aurkezteko, eta orain bai, orain ikusten naiz kapaz jasotzeko jendearen kritika.

Lehiaketaz aparte ikusten duzue beste biderik?

(isiltasuna) Bidea egon badago baina oso zaila da, urrutiko sentitzen dugu. Ni ez naiz kapaz sentitzen oraintxe bertan idatzi eta argitaletxe batera joateko. Tailerretan ez digute inoiz azaldu nola egin behar den (barreak). Ez da gauza oso publikoa. Gure inguruan badaude idazle asko, gazteak, eta gehienak izan dira lehiaketen bidez, lehenengo aldiz behintzat.

Apaletik hasi zineten, ezta? Behe-behetik, hortik Bandaren izena.

Hor sentitzen ginelako. Ez genuen esaten gure lana txarra zenik, baina bai geunden behe hortan, lurretik oso gertu. Sentitzen genuen inork ez zituela gure lanak irakurri nahi, azkenean gazte batzuk dira, atera berriak, ez dakite ezta zertan ari diren bizitzan, jendearen pertzeptzioa izango zela idazle amateurrak ginela. Orain dela gutxi lortu dugu sinesgarritasun pixkat, Durangoko errezitaldian.

Inflekzio puntua izan zen.

Apurtzaileak izan nahi genuen, eta horrek momentu batean txarrera egin zigun, gu ez garelako performerrak, gu idazleak gara, eta antzerki bat egiten saiatzen ari ginen.

Gure helburua da gure testuen bidez, gure gazte perspektibatik, gure iritziak edo pentsamenduak botatzeko leku bat eduki. Probokatzea probokatzeagatik ez. Gure helburua da gazte belaunaldiari zuzendutako literatura egiten saiatzea, haiekin konektatzea.

Zer aurpegiratzen diozue literaturaren sistemari?

Sistema literarioa oso estuki lotuta dago sistema kapitalistarekin. Ez dugu idazle izenik eta ez dugu sartu nahi gurpil horretan. Egin nahi ditugu gauzak beste leku batetik, guk geuk kontrolatuz gure medioak, gure hitzak.

Euskal literaturaren sistema gazte batentzat da oso itxia da, oso hermetikoa. Literaturaren merkantilizazioa da. Eta oso deskonektatuta ikusten genuen gazteon perspektibatik.

Helburua ez da, beraz, besteek idazle hartzea? Zerk egiten du norbait idazle?

Gizarteak idazleaz duen pertzeptzioa apurtu nahi genuen: nork bere gelan idatzi, azokan aleak sinatu eta hurrengo liburua egin. Eta guk, ez ditugu gure buruak oraindik idazle bezala deskribatzen. Zuk idatzi dezakezu, gauzak publikatu eta jendeari iritsi ahal zaio beste bide batez.

Nolako feedback-a daukazue?

Testuak igotzen ditugu, eta bazen liburuetako bat sare sozialetan asko ibiltzea eta testua zabaltzea. Nahi badugu gazteengana iritsi, gazteok sare sozialetan gaude. Kanpoan egongo bagina, ez ginateke guk nahi dugun publikora iritsiko. X-en eta Instan bideoak edo argazkiak igotzen ditugu testu zatiekin.

Iritsi nahi genuen lekuetara iritsi gara horien bitartez. Gure helburua zen gure edade inguruko jendearengana iristea eta *feed-back*-a beraiengandik jaso dugu, eta gustura.

Nahi badugu gazteengana iritsi, gazteok sare sozialetan gaude. Iritsi nahi genuen lekuetara iritsi gara horien bitartez. Gure helburua zen gure edade inguruko jendearengana iristea eta *feed-back*a beraiengandik jaso dugu, eta gustura.

Lau urte hauetan zein eboluzio ikusi duzue Bandan?

Aleka joan da. Ale bakoitzak markatu du etapa bat. Oso umil hasi ginen, jakin gabe jendeak irakurriko zuen, oso xume, gu ausartzeko idaztera. Lehena BEHE izan zen, behetik. Momentu batean haserretu egin ginen; publikatu eta ez zen ezer gertatu, isiltasuna. Bigarrena OMEN izan zen: zerbait egin *omen* dugu. Eta orduan irratian elkarrizketa egin eta hortik dena aldatu zen. ARGIA aldizkarirako zutabeekin, idazteko beste modu bat ikasi dugu, eta konstantzia eta errekonozimendua ere eman dizkigu.

Nola ikusten duzue zuen burua hemendik hiru edo lau urtera?

Laugarren alea prestatzeko bilera dugu laster, eta desberdina izatea nahi dugu. Begirada ez dugu oso epe luzekoa. Hemendik bi urtera ez dakigu existituko den. Ale hau egiten dugunean, egiten badugu, beste zeozer egiten jarriko gara eta horrela. Etortzen zaigunaren arabera.

Beste Bandei begiratu diezue, zer egin duten, nola egin duten?

Banda bat sortu nahi genuela esanez hasi ginenean bai begiratu genien, batez ere arakatzeko eta modu desberdinak deskubritzeko, baina oraintxe gauden puntuan, jada gure bidea sortu dugula, ez diegu begiratzen.

ITU BANDA (2013-)



Martin Bidaur
Paul Beitia
Jon Gurrutxaga
Alazne Arruti
Garazi Mugarza
Mikele Landa
Itziar Ugarte
Maialen Akizu

Lehenengo orrian darabilzkigun maskarek ongi esan duten moduan, ez gara hiru kale-argi soilik baina bagara kale-argiak. Banan bana piztuko direnak (edo, bestela, begira ezank leihotik) zeure estrata zeharkatu eta karrikak argi hori gozo batez erasoz. Kafe artean igeri berba egin dugu izkiriatzeaz. Izkiriatzeaz eta esna egoteaz. Gazte baikara eta zirrikituek ez baikaituzte akitu; ez oraino. Ez gara Sir Beñat Sarasolak deskribatzen zuen generazio distopikoa. Hemen gaude eta jarraitzeko asmoarekin (ai, Sarri!).

Zer eman dizu ITUk?

ITU Bandaren parte izateak literatura modu kolektiboan pentsatzeko eta egiteko aukera eman zidan: taldean idazteko, bakoitzak berea idatzita ere taldeari edo proiektu zabalago bati ekarpena egiteko, zergatik eta zertarako idazten dugun elkarrekin pentsatzeko... Eskola izan zen, esperimentatzeko eta hazteko lekua.



Martin Bidaur

LUBAKI BANDA (1993-1996)



Xabier Aldai
Garikoitz Berasaluze
Harkaitz Cano
Asier Serrano
Eluska Fernandez
Xabier Gantzarain
Manex Mujika
Josu Goikoetxea
Lierni Ibargutxi
Ibon Iribarren
Arantxa Irigoien
Ander Izagirre
Saioa Muguruza
Manex Mujika
Mikel Reparaz
Iñigo Iruretagoiena
Itziar Iruretagoiena

Hau da gure taldea. Krisiaren gezur laisterkaria bahitzera datorrena. Hainbat lelokeriaren oihartzunaz horditurik bere ahotsa argitara atera beharrean aurkitu dena. Han hemenkako lubakietan gorderik dauden idazleak beren ezkutalekuetatik atera eta fronte berriak irekitzera gonbidatzen dituen banda. Kolaboratzaile berriei irekita dagoen banda. Lubakiek ez baitute aterik noraezean dabiltzan saritu nahiz zaurituentzat. Egun literaturan basamorturik baldin badago, zuek desierto deklaratzen dituzuen sariketen basamortua baino ez da (...) Lehiaketen aurrean, liburuak, aldizkariak, fanzineak, poemak, ipuinak eta teatro saioak bultzatzeko premia daukagu.

Zer eman dizu LUBAKIk?

Sarituen eta zaurituen arteko sarea. Lagunak. Bultzada. Ilusioa. Ausardia. Aurrera egiteko gogoa. Isilpekoa zabaltzeko bidea. Ahotsa. Argia. Plaza. Orrialdeak. Bidelagunak. Babesa. Zabaldutako ateak, eta giltzak. Bateko eta besteko giltzak. Kazetaritzarako. Liburugintzarako. Euskalgintzarako. Hauspoa izan zen Lubaki hainbatentzat.



Gari Berasaluze

SUSA TALDEA (1980-1994)



Josu Landa
Mikel Hz Abaitua
Iñaki Uria
Mikel Antza
Pablo Sastre
Maripi Solbes
Xabier Montoia
Eneko Olasagasti

Josu Landa (ezkerrean), Kike Amonarriz eta Mikel HZ Abaitua (Chomsky-z mozorrotuta) eta Iñai Uria eskuinean. Noam Chomskyri buruzko parodia EUTGn (1980?).

> *Izarrak susara daudenean harrapatzen dizkiegu bere ahaztutako ajedrezko printzak. Bakarrik susara dagoenean sartzen gara itsasora metalezko lurrunekin jolastera. Gure azala guztia susara dagoenean soil-soilik idatzi dezakegu. Gure susara zuek ekararaztea da gure asmo bakarra. Susan dago bizitza. Etorri behar duzu.*

Zer eman dizu SUSAk?

1977an, unibertsitatean ikasten hasteko, Donostiara heldu nintzenean, ez nuen pertsona bat ere ezagutzen hiri osoan. Lagunak egiteko, tertulia literario bat antolatzea otu zitzaidan. Nire ikasgelako kide bati kontatu nion asmoa, norbaitek esan baitzidan berrikitan sari literario bat irabazi zuela idazle gazteentzako leihaketa batean. Adiskide berriak Josu Landa zuen izena. Literatura zale gehiago bilatu eta astean behin biltzea erabaki genuen, gure lanak elkarri irakurtzeko. Hainbat hilabeteren ondoren aldizkari bat sortu behar genuela esan zuen Josuk. Zoratuta zegoela esan genion, baina mutil burugogorra zen eta laster bildu gintuen aldizkariaren izena aukeratzeko. Adiskideek arrakastarik izan ez zuten hainbat izen bota ondoren, nik "Susa" proposatu nuen, Nemesio Etxanizen 'Susara' poema erotikoa gogoratuta, eta onartua izan zen. Nik ez nuen taldean asko iraun ordea, baina aldizkariak bai, eta are gehiago proiektu hartatik ateratako Susa argitaletxeak, gaur arte hain zuzen ere.



Mikel Hz Abaitua

MAIATZ TALDEA (1982-)



1989 Sarako Biltzarra

Lucien Etxezaharreta
Itxaro Borda
Jon Casenave
Aurelia Arkotxa
Henriette Aire
Piarres Xarriton
Mayi Pelot
Auxtin Zamora

“Aldizkari bat, gurea. Gauza batzuk, denetarik, euskaraz, landuak. Gure literatura. Literatura zertarako? Gure sentimenduak ez diten bakarrik pasa, baina bizi ditzagun. Maitasuna, lana, tristezia eta mendiak, esperantza eta gau baten zoriona, euskaraz. Gureak euskaraz direlakoan. Literatura guretako. Ez gauza hil batzuk, ikerketa hotzetarakoak eta errautsez bete erakustokietarakoak. Literatura bizirako.”

Zer eman dizu MAIATZek?

1981eko udaberrian hasi zen Maiatz literatur aldizkari proiektua, hainbat iparraldeko idazle bildu zirenean Itxaro Bordaren eta Luzien Etxezaharretaren inguruan. 1982ko otsailean agertu lehen numeroa. 1984tik aitzina, liburu-argitaletxe bilakatu zen, eta ordutik hona Baionan, literaturaren funtsa jorratzeko jardunaldiak ere antolatzen ditu. Urtean bi-etan publikatzen den aldizkariaren 80 zenbaki eta 150 liburu badira jadanik plazan, Maiatzen logotipoarekin. Iparraldeko idazleentzat laborategi gisa funtzionatzea zuen helburu eta hala gertatu da gaur ezagutzen ditugun hainbat idazleentzat.

Lehen zenbakiko proklaman argi gelditzen da kasik berrogeita hamar urteotan Maiatz aldizkariak eraman duen bidearen noranzkoa. Ez dut uste desbideratu garenik.



Itxaro Borda

POTT BANDA (1978-1980)



1978?

Bernardo Atxaga
Ruper Ordorika
Joxemari Iturralde
Joseba Sarrionandia
Jon Juaristi
Manu Ertzilla



2022

Bi hitzetan adieraziko dizuegu zertan den geure konplotta. Editoriale bat egiteko bildu gara Bilbaon POTT bandakook. Legioan bezala ez diogu elkarri eskatu curriculum vitaerik, afalondotako patxadaz hasi gara ekinean. Ukatu egin digute, oraingoz, derrigorrezko zenbaki editorialea; baina burokraziaren mirakuluak ez gaituzte alderatuko. Bihen bitartean, hau bezalako panfloen bitartez jakinen duzue gutaz. Hitz bat oraindik: editoriale bat ez da beti sortzen plangintza kulturalaren hutsuneak betetzearren. Ez gaude horri begira. Begira gaude begira goiko kamino berrira, esan nahi baita, ez gaudela inori serbitzeko geure buruak argitzeko baino. Mekaben Pott.

Zer eman dizu POTTek?

Aspaldiko kontuak dira horiek: laster 50 urte talde hori sortu genuela! Lagun arteko giroa izan zen, eman eta jaso egiten genuen, aldiberean. Neguko sua bezalaxe izan zen: sua piztu eta zaindu egin behar duzu eta orduan, berotasuna goxotasuna jasoko duzu trukean.



Joxemari Iturralde

Editoreak: Laura Mintegi - Maddalen Subijana
Diseinua eta maketazioa: Laura Mintegi

pen@euskalpen.eus
www.euskalpen.eus

BASQUE PEN
Agoitz Plaza, 1.
48015 Bilbao-Bizkaia
Euskal Herria

Babeslea: ETXEPARE EUSKAL INSTITUTUA